



ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkateak emana.

IKUSIRIK

Departamentua:	Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa
Azpisaila:	Hirigintza
Espedientea:	2023IORD0012
Erlazionatutako espedientea:	2022IORD0001
Gaia:	<i>Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.</i>

I.- AURREKARIAK

Udal honen Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako osoko bilkuran, onartu zuen Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailea (GAO, 2017ko uztailak 7, 130 zk.).

Era berean, Udalbatzak, 2023ko urtarrilaren 26an eginiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zien Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailean egindako aldaketei.

Bestalde, hasieraz onartu berri den Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzaileak honakoa dio: *Alkatetzari ahalmena ematen zaio dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile bakoitzaren beharrezko aldaketak egiteko, ordenantza horiek Ordenantza Orokor honetan sartutako aldaketetara egokitzeko helburua baduten. Ordenantza espezifikoaren aldaketak Alkatetzaren Dekretu bidez ebazteko dira eta informazio publikoko izapide bideak jarraitzea.*

Erregimen Lokaleko oinarriak arautzen dituen legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra informazio publikorako ikusgai jarri da hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko (GAO, 2023ko otsailak 2, 22 zk.).

Informazio publikorako epea amaitzen bada inolako erreklamaziorik egin gabe, onarpena behin betikoa izango da. Bestelako kasuan, udalbatza osoak aztertu eta ebatzi beharko ditu aurkeztutako alegazio edo iradokizunak, eta Ordenantza Orokorari behin betiko onespena eman, hala baderitzo.



Bestalde, Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumena Departamentuak, besteak beste, Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko Udal Ordenantza onartu zuen, Udalbatzak 2022ko uztailaren 28an behin betikoz onartu zuena, eta 2022ko azaroaren 9an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua (212 zk.).

2023ko otsailaren 28an, kontu-hartzaile akzidentalak eta bitarteko kontu-hartzaile teknikariak baldintzatutako aldeko txostena egin dute; baldintzapeko izatearen arrazoa oraindik txosten juridikoa egiteke zegoela da.

2023ko martxoaren 2an, Idazkaritzako administrazio orokorreko teknikariak (AOT) aldeko txostena egin du. Beraz, Kontuhartzailetzako txostena ere aldekoa da.

II.- EGINDAKO ALDAKETEN INGURUAN

Tolosako Udalaren eta bere Entitate Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean edukiaren egokitzapen eta moldaketa beharra dakarte, besteak beste, honako legeek:

- Enpresa Sortu eta Hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legea
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legea, 21 bis artikulua
- 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legea, azken xedapenetako hamahirugarrena

Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/20023 Lege Orokorrari jarraiki zeharkako kostuen muga kendu da eta justifikatzeko kontu-erraztuaren inguruan ere argibideak sartu dira.

Aldaketok guztiok modu honetan eragiten diote Tolosako Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko ordenantza espezifikoari:

Ordenantzako 7.2. artikuluan, Onuradunaren betekizunen inguruan:

Aurreko testua:	Testu berria:
2. Ezingo zaie dirulaguntzarik eman Tolosako Udalarekin zorrak izateagatik presazko bidetik kobratzeko prozeduraren baten barnean daudenei, harik eta zor horiek egiazki aseta, kitatuta edo beteta izan arte, non eta ez dauden atzeratuta, zatikatuta edo horien egikaritzea etenda. Horretaz gain, egunean izan beharko dituzte gainerako zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak ere bai.	2. Ezingo zaie dirulaguntzarik eman Tolosako Udalarekin zorrak izateagatik presazko bidetik kobratzeko prozeduraren baten barnean daudenei, harik eta zor horiek egiazki aseta, kitatuta edo beteta izan arte, non eta ez dauden atzeratuta, zatikatuta edo horien egikaritzea etenda. Horretaz gain, egunean izan beharko dituzte gainerako zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak ere bai.
Tolosako Udalean dirulaguntza bat eskatu eta behin-behinekoz onartu ondoren,	3. Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona onuradunaren izaeratik



<p>ezingo da diruz lagundutako obra bererako beste dirulaguntzarik eskatu, hura behin-behinekoz emateko ebazpenaren datatik bost urte igaro arte.</p>	<p>kanpo geratuko dira: Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.</p> <p>Debekua ezartzen da bat etorrira xedapen hauekin: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.</p> <p>4. Tolosako Udalean dirulaguntza bat eskatu eta behin-behinekoz onartu ondoren, ezingo da diruz lagundutako obra bererako beste dirulaguntzarik eskatu udalean, hura behin-behinekoz emateko ebazpenaren datatik bost urte igaro arte.</p>
---	--

Ordenantzako 11. artikuluan, Tramitazioa eta balorazioaren inguruan:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>Eskaeraren balorazioa Lurraldearen arloko batzorde informatiboari dagokio. Balorazioa, departamentuko teknikarien txostenean oinarrituko da. Balorazio hori eta dirulaguntza emateko proposamena organo eskudunaren esku jarriko da, hark onar dezan.</p>	<p>Eskaeraren balorazioa Lurraldearen arloko batzorde informatiboari dagokio. Balorazioa, departamentuko teknikarien txostenean oinarrituko da. Balorazio hori eta dirulaguntza emateko proposamena organo eskudunaren esku jarriko da, hark onar dezan. Batzordearen osieran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da.</p>

Ordenantzako 13. artikuluan, lanak amaitzean aurkeztu beharreko dokumentazioaren inguruan:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>1.1.Elementu komunetan egin beharreko lanetarako:</p> <p>(...)</p> <p>1.1.c Azken fakturak, behar bezala beteta; eta horiek ordaindu izanaren ordainagiriak</p>	<p>1.1.Elementu komunetan egin beharreko lanetarako:</p> <p>(...)</p> <p>1.1.c Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun</p>

ESKU09d6c8b5-8e34-4f12-99ab-740b3ef23be1



<p>edo horiek finantzatzeko konpromisoa. Azkena izanez gero, ezinbestekoa izango da jaso beharreko laguntzak bermatzeko banku abala.</p> <p>(...)</p> <p>1.2. Elementu pribatiboetan egin beharreko lanetarako:</p> <p>(...)</p> <p>1.2.c Azken fakturak, behar bezala beteta; eta horiek ordaindu izanaren ordainagiriak edo horiek finantzatzeko konpromisoa. Azkena izanez gero, ezinbestekoa izango da jaso beharreko laguntzak bermatzeko banku abala.</p> <p>(...)</p>	<p>administratiboa duten gainerako agiriak; horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa.</p> <p>Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira hurrenez hurren ordenatuta zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera.</p> <p>(...)</p> <p>1.2. Elementu pribatiboetan egin beharreko lanetarako:</p> <p>(...)</p> <p>1.2.c Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak; horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa.</p> <p>Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira hurrenez hurren ordenatuta zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera.</p> <p>(...)</p>
---	--

III.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Ordenantza espezifiko aldatzeko prozedura egingo da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horiek horrela, Alkatetza honek

EBAZTEN DU

LEHENA.- Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko Udala Ordenantzaren aipatutako aldaketak hasieraz onartzea Alkate Dekretu bidez, Ordenantza Orokorraren aldaketarekin bat etor dadin, honako testuaren arabera:

Ordenantzako 7.2. artikuluan, Onuradunaren betekizunen inguruan:

Aurreko testua:	Testu berria:
2. Ezingo zaie dirulaguntzarik eman Tolosako Udalarekin zorrak izateagatik presazko bidetik kobratzeko prozeduraren	2. Ezingo zaie dirulaguntzarik eman Tolosako Udalarekin zorrak izateagatik presazko bidetik kobratzeko prozeduraren



<p>baten barnean daudenei, harik eta zor horiek egiazki aseta, kitatuta edo beteta izan arte, non eta ez dauden atzeratuta, zatikatuta edo horien egikaritzea etenda. Horretaz gain, egunean izan beharko dituzte gainerako zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak ere bai.</p> <p>Tolosako Udalean dirulaguntza bat eskatu eta behin-behinekoz onartu ondoren, ezingo da diruz lagundutako obra bererako beste dirulaguntzarik eskatu, hura behin-behinekoz emateko ebazpenaren datatik bost urte igaro arte.</p>	<p>baten barnean daudenei, harik eta zor horiek egiazki aseta, kitatuta edo beteta izan arte, non eta ez dauden atzeratuta, zatikatuta edo horien egikaritzea etenda. Horretaz gain, egunean izan beharko dituzte gainerako zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak ere bai.</p> <p>3. Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira: Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.</p> <p>Debekua ezartzen da bat etorrita xedapen hauekin: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.</p> <p>4. Tolosako Udalean dirulaguntza bat eskatu eta behin-behinekoz onartu ondoren, ezingo da diruz lagundutako obra bererako beste dirulaguntzarik eskatu udalean, hura behin-behinekoz emateko ebazpenaren datatik bost urte igaro arte.</p>
--	---

Ordenantzako 11. artikuluan, Tramitazioa eta balorazioaren inguruan:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>Eskaeraren balorazioa Lurraldearen arloko batzorde informatiboari dagokio. Balorazioa, departamentuko teknikarien txostenean oinarrituko da. Balorazio hori eta dirulaguntza emateko proposamena organo eskudunaren esku jarriko da, hark onar dezan.</p>	<p>Eskaeraren balorazioa Lurraldearen arloko batzorde informatiboari dagokio. Balorazioa, departamentuko teknikarien txostenean oinarrituko da. Balorazio hori eta dirulaguntza emateko proposamena organo eskudunaren esku jarriko da, hark onar dezan. Batzordearen osieran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da.</p>



Ordenantzako 13. artikuluan, lanak amaitzean aurkeztu beharreko dokumentazioaren inguruan:

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>1.2.Elementu komunetan egin beharreko lanetarako:</p> <p>(...)</p> <p>1.1.c Azken fakturak, behar bezala beteta; eta horiek ordaindu izanaren ordainagiriak edo horiek finantzatzeko konpromisoa. Azkena izanez gero, ezinbestekoa izango da jaso beharreko laguntzak bermatzeko banku abala.</p> <p>(...)</p>	<p>1.2.Elementu komunetan egin beharreko lanetarako:</p> <p>(...)</p> <p>1.1.c Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak; horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa.</p> <p>Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira hurrenez hurren ordenatuta zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera.</p> <p>(...)</p>
<p>1.2. Elementu pribatiboetan egin beharreko lanetarako:</p> <p>(...)</p> <p>1.2.c Azken fakturak, behar bezala beteta; eta horiek ordaindu izanaren ordainagiriak edo horiek finantzatzeko konpromisoa. Azkena izanez gero, ezinbestekoa izango da jaso beharreko laguntzak bermatzeko banku abala.</p> <p>(...)</p>	<p>1.3. Elementu pribatiboetan egin beharreko lanetarako:</p> <p>(...)</p> <p>1.2.c Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak; horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa.</p> <p>Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira hurrenez hurren ordenatuta zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera.</p> <p>(...)</p>

BIGARRENA.- Proposatutako aldaketa hauek Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailearen behin betiko onarpenera baldintzatzea.

HIRUGARRENA.- Ordenantza espezifikoaren aldaketa hauek eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek



TOLOSAKO
UDALA

aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, epe horretan entzunaldia ematea eragileei.

LAUGARRENA.- Informazio- eta entzunaldi-epea amaitu ondoren, Udalbatza osoak aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu. Alegaziorik ez balitz aurkeztuko, ordenantza espezifikoa behin betikoz onartutzat joko da.

BOSGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko web orrian eta Iragarki taulan, eta Gardentasunaren atarian argitaratzea.

Tolosan,

Alkatea

Idazkari akzidentala

Olatz Peon Ormazabal

Karmele Contreras Goikoetxea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IORD0012-Dekretu orokorra/Dekretu orokorra (TOLOSAKO UDALA)